

DONOSTIA / Catwomanek eta Txantxillok Liburutegi Nagusia hartu dute

NEREA LIZARRALDE. Udal Liburutegi Nagusiak 10 urte bete ditu Alderdi Ederreko egoitzan. Liburutegia, ordea, ez da urtemuga biribila ospatzen duen bakarra. Asterixek 50 urte bete ditu eta Tintinek eta Popeiek 80. Zertara datoz komikiaren munduko pertsonaia hauen urteurrenak? Badira bi arrazoi nagusi.

Lehenengo eta behin, Alderdi Ederreko liburutegian komikiteka izeneko gunek bat ireki dute. Hau da, komikiak eta argitalpen hauen inguruko liburuak jasoko dituen txokoa sortu dute. Horrez gain, bilduma handitu eta sailkapena berrantolatu dute.

Orain arte komiki mundua friki edo haurren kontutzat hartu izan da, baina pixkanaka indarra hartu du komikigintzak eta Liburutegi Nagusiak gunek duina eman nahi izan dio.

Txantxillo eta Catwoman, komikitekan

Atala osatzeko, zinemara eraman dituzten komikien DVD bilduma ere jarri ditu eskuragarri. Altzariak aldatu dituzte, apal eta erakustokiak berriztatu dituzte eta Dani Fano marrazkilari donostiarraren horma irudi batekin apaindu dute gunea. Txantxillo eta Catwoman robot erraldoi eta suntsitzaile batetik ihesi agertzen dira Alderdi Ederren. Liburutegia eta komikiak lotzeko bigarren arrazoia irudi honekin lotuta dago. Izan ere, Fanoren marrazki hau bera erabili dute Komik 10 izeneko komiki bibliografia-gida berria.

Joxean Muñoz, Miguel Berzosa, Pello Gutierrez...

Komiki gida asko argitaratu izan dira, baina euskal komikigileen inguruan dagoen hutsunea bete nahi izan dute. Juan Manuel Diaz de Gereñu Deustuko irakasle eta komiki adituak hartu du katalogoa osatzeko ardura: Azken hamar urteotan komiki bildumaren bat argitaratu duten euskal egileen lanak bildu ditugu, azaldu du aurkezpenean.

Miguel Berzosa, Pello Gutierrez Peñalba, Iñaki G. Holgado, Oscar Manrique, Joxean Muñoz eta Santiago Valenzuela dira Komik 10 argitalpenean agertzen diren komikilari eta gidoilari donostiarrak. Hauen izenak, halaber, kolore berdearekin nabarmendu dituzte.

Udal liburutegietan eskuragarri

Komik 10 hiriko hamabost udal liburutegietan eskuratu ahal izango da doan. Udalak 7.000 ale kaleratu ditu. Liburutegi Zerbitzuaren ibilbide berriaren lehen urtea da. Aurrerantzean berrikuntza gehiago izango dira. Besteak beste, urtero gida bat egiteko asmoa dute, mota guztietako komikiak jasoko dituen.

Azaroan ere komikiak protagonismo handia izango du, Okendo eta Ernest Lluch kultur etxeetan Beldurrezko Astearen harira antolatutako komiki jardunaldiak egingo baitituzte.

Liburutegien Nazioarteko Eguna

Gaur, urriaren 24a, Liburutegien Egunaren harira ipuin kontaketa antolatu dute Groseko Okendo kultur etxean. Ipuinaren ordua 18:00etan hasiko da. Bestalde, Liburutegien Eguna dela eta, Arantza Urkia Liburutegi Nagusiko arduradunak hiriko liburutegien inguruan hainbat datu plazaratu nahi izan ditu: Liburutegiak modan daude Donostian. Dagoeneko 89.000tik gora dira liburutegietako eta Donostia Kulturako bazkideak.

Liburutegi zerbitzuan, gainera, hainbat proiektu dituzte esku artean. Alderdi Ederreko komiki sailaz gain, liburuzainen lantaldea liburu elektronikoen mailegua antolatzen ari da, eta 2.0. web-aren garapenari dagokionez, berriak zabaltzeko blog bat sortu nahian ari dira lanean.

Gaur egun udal liburutegien sarea 15 gunek osatzen dute eta pixkanaka hazten ari da. Laster beste bi izango dira hirian: Aieteko Jauregian, bata; eta Intxaurrondon, bestea.